

DOMJAN, M. (2003)

Principios de aprendizaje y conducta. Madril: Thomson

Liburu honen egilea, Austinen dagoen Texaseko Unibertsitateko Kate-draduna da Psikologia Sailean. Liburu honetan irakurleak ohitze, kondi-zionamendu klasikoa, kondizionamendu instrumental, kinadaren bidezko kontrola eta ezagutzaren azterketarako aplikazioei buruzko funtsezko in-formazioa aurkituko du. Halaber, jokabidearekin lotutako arazozen kon-ponbideari buruzkoa.

Liburu honen irakurketa erraza da eta egileak irakurlea eramaten du paradigma, kontzeptu eta teoriaren erraza denetik konplexutasunera. Egune-rokotasunatik ateratako adibide eta analogien bitartez, ideia nagusi eta kontzeptu garrantzitsuenak sartzen dira.

Egileak dioen bezala, liburu hau prestatzeko 1996tik hona aldizkari es-pezializatuetan argitaratu den ikerketak aztertu ditu. Azterketa honek liburu honek dituen oinarri teorikoen sendotasunari buruzko garrantzia erakus-ten digu.

Egileak ez du bere burua kokatzen ikuspegi teoriko konkretu batean, baizik eta ideia desberdinen aspektu indartsu eta eskasak zeintzuk diren azaltzen saiatzen da. Honek Kapitulu bakoitzak informazio teorikoa es-kaintzeaz gain, irudiak eta eskema ugari aurkezten ditu eta bukaeran autoe-baluaziorako galderak eta kapituluaren kontzeptu giltzarrien zerrenda bere definizioarekin. Dударik gabe, aspektu hauek liburuaren erakargarritasuna-ren alde jotzen dute.

A. Aierbe

SMALE, G., TUSON, G. eta STATHAM, D. (2003)

Problemas sociales y trabajo social. Madril: Morata

Hamaika kapituluz osaturiko liburu honetan Gizarte-lanaren ikuspuntu ekologiko eta aberatsa eskaintzen digute egileek.

Liburuaren lehen zatian gizarte-lanean ezagutzen diren hainbat plan-teamendu tradizional jorratzen dira eta lan eremu honetan aldaketa eragin-korrek gerta daitezzen zer egin behar den zehazten da. Hain zuzen ere, eraginkortasun hau lortzeko arazoek konponbide prozesuetan inplikaturik dauden pertsona guztien partaidetza lortzea erabat beharrezkoa litzateke.

Lehenengo kapituluan, arazoek konponbide prozesuetan alde aurretik hartutako konponbideak aplikatzea ez dela Gizarte Lanaren eginkizunik nagusia, arazoak konpontzea baizik azpimarratzen da. Ondorengo (2. eta 3.) kapituluetan eremu teorikoa jorratzen da. Laburbilduz, abiapuntua hauxe litzateke: a) pertsonak eta familiek dituzten beharrei erantzuna emateko erakomunitate bakoitzaren menpe daude eta b) gizarte-langilearen eginkizuna gizarte sareak indartzean datza, isolaturik eta baliabiderik gabe gelditzen diren pertsonen laguntzeko asmoz. Beste era batera esanda, pertsona baztertuak jasan egiten dituzten krisiak gainditzeko laguntza ematea garrantzitsua bada ere, gizarte-langilearen azken helburua «garapena» litzateke, pertsona horien autonomia gero eta handiago izan dadin. Laugarren kapituluan gizarte lanaren dimentsioak aztertzeari ekiten dio liburuak, batez ere lankidetzak azpimarratuz, azken zatian gizarte-arazoek izaeraren azterketarekin atalari amaiera emanez.

Liburuaren beste atala aldaketaren prozesu zehatzekin lotuta dago, besteak beste, planifikazioa, ebaluaketa eta zailtasunen inguruko gogoeta prozesuak aztertzen direlarik. Hasteko, seigarren kapituluan, harreman eta gizarte aldaketaren eremu teorikoa aurkezten digute egileek, lehenengo eta bigarren mailako aldaketak ezberdindu. Ondoren, zazpigarren kapituluan, ebaluaketa eta esku-hartzearen funtzioak uler ditzagun hiru eredu-galderekin, prozeduren eta trukearen ereduak azaltzen dizkigute egileek, beraien ustez egokiena zein den justifikatuz: trukearen ereduak. Azkenik, atal honen barruan zortzigarren kapituluan, pertsonen ezaugarriek eta erakundearen praktika eta politikek arazoak konpontzea nola oztoka dezaketen aztertzeari ekiten diote.

Azkeneko kapituluek hirugarren atala osatzen dute eta horietan aurki dezakegu trebetasunen azterketa benetan interesgarria. Bederatzigarren kapitulari elkarte-trebetasunak aztertzea dagokio eta harremanak tresnarik onena direla ikusteko adibide ugari azaltzen dizkigute egileek. Honela, gizarte langileak oso ezberdinak diren pertsonekin komunikatzen jakin behar duela esaten dute, eta are gehiago, esku-hartzearen eraginkortasuna trebe-

tasun hauen erabileragatik erabat baldintzatuta dagoela. Azken kapituluari dagokio esku-hartzearen trebetasunak adieraztea: inizatibak bultzatzea, gogoetak egitea... Gizarte-langileek hainbat trebetasun izan behar dituzte besteen egoerak eta arazoak ulertzeko, trebetasun hauek egon ezean berrtan saila baita edozein aldaketa lortzea. Funtsean, egileek behin eta berriro gogorazten digute esku-hartzearen trebetasun guztiak komunikazio gaitasunean oinarritzen direla.

M. A. de la Caba

JUNG, I. eta LÓPEZ, J.E. (comps.) (2003)

Abriendo la escuela. Lingüística aplicada a la enseñanza de lenguas. Madril: Morata

Urteak dira zenbait hezitzaile eta hizkuntzalari Latinoamerikako indigenen eskoletako kalitateaz arduratzen hasi zirela. Bestalde, bertakoak beren behar eta nahiei erantzungo ziren eskola aldarrikatzen hasiak ziren. Honen guztiaren ondorioz Kulturarteko Hezkuntza Elebidun programa ugari sortu dira.

Erabateko adostuta dago herri indigenen hezkuntzaren protagonista nagusiak beraiek izan behar dutela. Aldiz, aztertzeke dago eskola hauek nola hobe daitezkeen eta nola bermatu daitezkeen kalitatea beraietan.

Liburu honetan bertakoen hezkuntza-egoera hau aztertzen da hizkuntzaren ikuspegitik. Aztergaiak hauek dira: H_1 eta H_2 ren jabekuntzaz dauden ikerkuntzak, bertakoen eskoletan behatutako komunikazio eta hezkuntza-jarduerak, historian zehar gaztelerak irakaskuntzan izan duen esparrua eredu elebidunetan, idazketak H_1 eta H_2 ren jabekuntzan duen eragina, etab.

Liburu honetan 14 adituk idatzi dituzte beren ekarpenak. Bertan ageri dira bai urteetako historia, bai kasu jakinen analisiak. Guztietan, gai bere-tsuak plazaratzen dira ikuspegi desberdinetatik aztertuak: eskolako komunikazioan dauden bi hizkuntzen ikaskuntza-prozesuak, hizkuntzen didaktika, eta idazketa emaitza gisa nahiz ikaskuntzaren bitartekari gisa.

Egileen iritziz, liburu honen ideia nagusia haxe litzateke: bateragarritasuna bilatzea gizarte indigenen ahozko ekoizpenen eta mendebaldeak eragindako gizarte hiritarren artean. Hartara, gizarte indigenek beren ahozko eta ez-ahozko espresibideak indartu egingo lituzkete eta, aldi berean, beste hainbat lanabes eskuratu —idazkera, esate baterako— beren garapenerako lagungarriak izan daitezkeenak.

Liburu honek kilometrotan urrutikoak diren gertaerak aztertzen baditu ere, gertaera horiek ez daude gure herritik hain urrun. Hizkuntzaren trata-

mendua eskoletan, bai ahozkoa, bai idatzizkoa, beti izan da kezka nagusia Euskal Herriko eskoletan. Azken urteetan, gainera, ahozkotasanak bizi izan duen garrantzia ikasgeletan uka ezina da. Etxeko hizkuntza eta hizkuntza estandarren arteko gatazkak, zerk eduki behar duen lehenetasuna eta zein adinetan, zertarako, idazketak zein esparru bete behar duen, idazketak ahozkotasanaren hobekuntzan eraginik ba ote duen... gai hauek ere gurean noiznahi ditugu eztabaidagai. Alde horretatik, liburu honek nahiz eta Latinoamerikako eskoletako hizkuntza-egoera izan aztergai, bide batez gure eskoletarako hausnarketa garrantzitsu eta datu interesgarri eskaintzen dizkigu. Azpimarratu nahi nuke liburuko idazleen artean, herri eta jakintza-arlo desberdinetako adituak daudela, honek liburua biziki aberasten duelarik.

I. Pikabea

VEGA FUENTE, A. (2003)

La educación ante la discapacidad. Málaga: Aljibe

Egileak heziketa bereziaren esparru zabalak aztertzen ditu liburu honetan. Liburuaren lehenengo eta bigarren atalean heziketa berezia Pedagogian kokatzen du, zientzia honen historia eta ildo nagusienak jorratuz. Interesgarria, benetan, «ezinduen» kontzeptua nola definitzen duen eta gizartearekiko dituen inplikazioak eta eraginak nola islatzen dituen.

Hirugarren eta laugarren atalean hezkuntzaren zeregina pertsona «ezinduaren» integrazioan lantzen du. Gizartearen eta eskolaren ardurak, lan garrantzitsu honetan, azpimarratzen dira. Eskola kontestuan egileak arazo ugari azpimarratzen ditu integrazio lanetan: emaitza eskasak, ikasleen eta gurasoen beharrei ez zaie erantzuten, eskuhartze pedagogikoaren kostua eta garestitasuna, ikasleen eskubideak gutxitan errespetatzen dira, hezkuntza eragileen koordinazio eza, eta abar. Baina, arazo hauek ahaztu gabe eskolaren lorpenak eta aurrerapenak ere islatzen dira. Gizartea eta eskola, bereziki, arlo zehatz honetan, integrazio arloan alegia, lehen baino askoz ere konszienteagoa eta sensibilizatuagoa dago.

Bosgarren atalean familiaren bilakaera eta aldaketak aztertzen ditu lehenik, eta ondoren, erakunde honen rola, ardura eta zailtasunak jorratzen ditu. Gizarteak familiari eskaintzen dizkion zerbitzuak eta laguntza publikoak, oraingoz, urriak eta eskasak direla uste du (geriatrikoak, psikiatria zerbitzuak, zaharren egoitzak, haurtzaindegiak...). Familiari laguntza, sostengurako materiala, emozionala, informazioa eta abar eskaini behar zaizkio, pertsona ezinduekiko bere erantzukizunak eta zereginak era egokian bete ditzan.

Seigarren atalean gizartearen interbentzioa eta eskuhartzea nolakoa izan behar duen definitzen saiatzen da. Gizarteak zerbitzu publikoak zein pribatuak eskaintzen ditu pertsona hauen egoerari erantzuteko. Egileak zerbitzu hauen zeregin komunitarioa azpimarratzen du, gizartearen eta hiritarren garapenerako sortuak baitaude.

Zazpigarren atalak lan integrazioa du aztergai. Hemen enplegu aukerak aztertzen ditu zenbait proposamen eginez: enplegu arrunta, enpresa propioa, lan babestua, diru laguntzak, eta abar. Pertsona ezinduak, gaur egun, dituen lan bideak zehazten ditu.

Azkenik, zortzigarren atalean gizabanakoaren eskuhartzea, partizipazioa eta bizi kalitatea lortzeko aholkuak eta irizpideak proposatzen ditu. Egilearen ondorio nagusietariko bat hau da: ezindua ez da pertsona «berezi» bat, gure gizartean bizi den pertsona arrunta baizik. Hau dela eta, bere eskubide guztiak bermatu behar dira gure gizartean erabat integratzeko. Hau da, laburki, egileak zabaltzen digun mezu orokorra.

P. Aramendi

PÉREZ SERRANO, G. (2003)

Pedagogía Social - Educación Social. Madril: Narcea

Liburu honek, «Gizarte Pedagogia» disziplinen garapen historikoen ikuspegi zehatza eskaintzen du eta aldi berean bere kontzeptu, metodo eta esku hartzeko esparru desberdinetan sakontzen du.

Lehendabiziko kapitulua, Gizarte Pedagogiaren jatorria eta garapenaz aritzen da, hain zuzen ere «klasikoa» izenez ezagutzen Gizarte Pedagogiaren jatorria eta garapena Alemanian. Kapitulu honetan, ordezkariak diren egileen ekarpenak, hala nola Pestalozzi, Kolping, Diesterweg eta Kerschensteiner, eta Alemanian Gizarte Pedagogiaren garapeneko aldi edo etapa garrantzitsuenen ezaugarriak topatuko ditugu.

Liburu honen bigarren zatia, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren kapituluek osatzen dute eta Gizarte Pedagogiaren kontzeptua argitzeko saiakera dela esan daiteke. Alde batetik, Gizarte Pedagogiaren definizioa eta kontzeptzio desberdinak, Gizarte Pedagogiaren izaera zientifikoa, beste disziplinekiko harremanak eta ikuspegi desberdinak aurkituko ditugu. Laugarren kapitulua Gizarte Hezkuntzaz aritzen dira. Perez Serrano egilearentzat Gizarte Hezkuntza, Gizarte Pedagogiaren aztergaia da. Kapitulu honetan Gizarte Hezkuntzaren inguruan dauden kontzeptuzko arazoak, ikuspegiak eta gizarte hezitzailearen esku hartze esparruak deskribatzen dira. Halaber, gizarte pedagogoarekiko antzekotasun eta desberdintasunak aurkezten dira. Bosgarren

kapituluan, Gizarte Hezkuntza eta Pedagogiaren aspektu akademiko eta profesionalagoen aurkezpena egiten da, hala nola Espainiako Unibertsitatean Gizarte Pedagogiaren agerpena eta egoera, Gizarte Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza tituluen ezaugarriak eta lanbide esparruak.

Seigarren eta zazpigarren kapituluak Gizarte Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzaren ikerkuntza-metodoen azterketari ekiten dio. Kapitulu haue-
tan, eremu hauek mugatzen dituzten ikerkuntza-lerro desberdinen ikuspegi argia eta osoa aurkezten saiatzen da.

Azkenik, zortzigarren kapitulua Gizarte Pedagogian egiten den esku hartzean planeatzen diren teknika desberdinak aurkezten dira. Honekin batera, Gizarte Proiektuak elaboratzeko elementuen deskribapena aurkituko dugu.

Esku tartean dugun liburu honi buruz zera esan daiteke: teoria eta praktikaren koherentzia aurkitzea etengabeko eginkizuna dela. Horretarako eskertzekoa da kapitulu guztien artean aurkituko dugun sekuentzia logikoa, honek, Gizarte Pedagogia arloari osotasunezko ikuspegia ematen baitio.

Liburu hau Gizarte Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzaz interesatuak daudenei zuzentzen zaie, bai gogoeta teoriko, bai esku hartze esparru zabal-
etik, zientzia pedagogiko-soziala eta bere praxiak bultzatzeko bideak ire-
kiko direla itxaropenarekin.

K. Santiago

GIROUX, H.A. (2003)

La inocencia robada. Juventud, multinacionales y política cultural.
Madril: Morata

Umeek edozein gizarteren etorkizuna ordezkatzen dute: gizarte baten etorkizuna ezagutu nahi bada, umeen begiei begiratzea besterik ez dago. Umeen superbibentziarako borroka gure etorkizunaren superbibentziara-
ko borroka ere suposatzen du. Liburu honetan entpresa kulturak haurtzar-
roan suposatzen duen inbasioa aztertzen da. Aipatutako kultura mota ho-
nek lehengo garaietan haurtzaroak erakusten zuen inozentzia lapurtzeko
saiakera aurrera eramaten du, umeak merkatuan lehenbailehen barnertzen
saiatzen delarik, ume horiek kontsumitzaile bihurtuz.

Liburu honek hiru oinarri nagusi aztertzen ditu eta oinarri horiek mito
moduan aurkezten dira:

—Lehenengo mitoak demokrazia eta kultura liberalaren garaipena az-
tertzen du, garaipen hau merkatuaren garaipenarekin lotuta geratzen
delarik. Kultura liberala merkatu kulturaren sinonimo bihurtzen da.

- Bigarren mitoak, hasieran aipatu dugun moduan, haurtzaroak erakutsi ohi duen inozentziaren aspektua aztertzen du. Liburuan adierazten den moduan, inozentzia hori egoera natural batekin lotzen da, egoera hori eragin mota askotatik aske geratuz, hau da, historia, gizartea, boterea eta politika bezalako aspektuek ez dute haurtzaroaren inozentzia eragiten, hau lehen adierazitako egoera naturalean aurkitzen baita.
- Hirugarren mitoak hezkuntzaren ikuspegia eta hezkuntza planteamenduak aztertzen ditu. Liburuan egungo hezkuntzaren helburu nagusia lehen bilatu ohi zen hobetzearen helburutik aldentzen dela arrazoitzen da. Egungo planteamenduan komertzio kulturaren garapena izaten da adierazgarri nagusietako bat. Modu honetan, profesionalismoaren kulturarekin disimulatzen den fatalismoa onartzen omen da.

Liburuan zehar haurtzaroaren inguruko gertaerak modu esanguratsuan aztertzen dira: edertasun lehiaketak, eskoletan gero eta gehiago agertzen den biolentzia maila... Beraz, gertaera hauek bakarrik oinarritzat hartuko bagenitu, egoera kezkarri batetaz hitz egin beharko genuke. Hala ere, aipatu diren gertaera hauekin batera, autoreak haurtzaroarentzat osasungarriak gerta daitezkeen testuinguruak aztertzen dituzten autoreak ere kontuan hartzen ditu, hala nola Gramsci, Freire eta Hall-en planteamenduak. Beraz, aipatutako autoreei buruzko azterketaren bitartez, hasierako ezkortasuna gaingintzeko bidea aurkitzen dugu, hezkuntzaren bidez garatu beharreko planteamendu egoki baten balioaz jabetuz.

I. Camino

KARRERA JUARROS, I. (2003)

Sexologiaren irudi erotikoa hezkuntza-zientzietan. Sexu-hezkuntza, Boterea eta Ekintzan kokatutako Ezagutza Kritikoa. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea

Pixkanaka bada ere, gauzak aldatzen ari dira euskarazko produkzio zientifikoan. Lehen arazoa testu gabezia zen, eta gaingintzen goaz auzia apurka-apurka, nahiz eta neurri handi batean itzulpen-lanen bidez izan, eta horrek nolabaiteko morrontza dakar berarekin. Izan ere, erreferentziazko zientzian dagoeneko eskuliburu edo klasiko bihurtutakoez gain, egunean eguneko ekarpen interesgarriak beti nola-halako atzerapenarekin iristen zaizkigu. Nahitaezko morrontza hori gaingintzeko, zer hobe euskaraz sortutako produkzioa baino?

Zorionez, gero eta gehiago dira baita bigarren bide horri ekiten diotenak, eta gero eta gehiago zuzenean euskaraz jorratzen diren gaiak, geurean eta geure moldeetan osatzen diren ekarpenak. Hauxe da Iñaki Karrera egile

gaztearen eta bere lehen liburuaren kasua, sexu-hezkuntzaren ur euskaraz oso gutxi ibilietan murgiltzera datorrena. Hain txikia izanik esparru horretako orain arteko liburugintza, egileak, mota honetako idatziek eskatzen duten lanez gain, terminologia zuzenaren inguruan egin den ekarpena gehitu behar izan dio. Gaur egun, euskarak terminologia sexologiko argirik ezean, UEU-ko Hizkuntza Zuzenketa taldeak gabezi honen berri izanik, bere hausnarketaren emaitzak eskaini dizkio egileari.

Hezkuntzaren Erreformaren ondorioetako bat zehar lerroei eta horiek jasotzen dituzte kezka sozialak errekonozitu eta curriculumean molde duinago batzuetara ekartzea izan da. Sexu-Hezkuntza ez da izan gehien landutako gaietakoa, eta arlo hori osatzera dator ekarpen berria.

Baina ohi ez bezala, lan honen xedea ez da hezitzaileei sexu-hezkuntzari buruzko programazio edo gida didaktiko bat eskaintzea, baizik eta «sexu-hezkuntzaren inguruko proposamen teoriko-praktiko argi eta zehatzen beharra aldarrikatzea» eta, finean, sexu-hezkuntzaren inguruan egunez egun egiten den lana hobetzea. Horiek horrela, egileari mendebaldeko gizarteetan gertatu den GISaren komertzializazioa arbuiatzea (eta, jakina, horren ondoriozko sexualitatea genitalitate bihurtzea). Ildo horretatik, egileak berak honako helburu nagusi iragartzen ditu:

- Sexu-hezkuntzaren inguruko saiakera metodologiko irekia plazaratzea, «egungo eskola-sistemak sexu-hezkuntzari eskaintzen dion arreta», eta «sistema horrek eskuragarri dituen giza-baliabideak eta baliabide materialak».
- Egoeraren aurrean, sexu-hezkuntza noren eskuetan egotea komeni den, nork jorratuko duen eta zein teknika izango dituen lagungarri aztertzea.

Horretarako, lau ataletan banatzen du Iñaki karrerak bere lana:

Lehenengoan sexologiaren eta sexu-hezkuntzaren historian izandako ekarpen nabarmenenak ekartzen ditu hizpidera, Wilhelm Reich, Michel Foucault eta Efigenio Amezúa-ren hausnarketak bereziki.

Bigarren atalean, sexu-garapenari buruzko oinarritzko ezaugarriak bildu ditu, haurtzarotik hasi eta nerabezaroraino. Hezkuntzarekin lotuaz, Haur-, Lehen- eta Bigarren Hezkuntzan aintzat har daitezkeen interesgune sorta zabala eta horiek lantzeko orientabide pedagogiko batzuk eskaintzen ditu Karrerak. Egilearen aburuz, «sexu-hezkuntzaren jarduera ez da kontzeptuetan oinarritzen; balioetan eta jarreretan» baizik.

Hirugarrenean, hezkuntzan oro har eta sexu-hezkuntzan ere bai, hezkuntza-jarduera positiboa eta partaidetzazkoaren bidean berebiziko garrantzia duen jarduera kooperatiboari eta talde-dinamikari buruz ari zaigu, teknika jakin batzuk aztertuz, eta horien metodologia eta funtsa azalerraz.

Eta, azkenik, laugarren atalean mendebaldeko kulturaren nagusiki erroto diren botere- eta ezagutza-estrategien berri ematen du, betiere «hezkuntzaren beraren kontzeptualizazio argia» osatzeko asmotan. Oinarri gisa, Habermas-en interesen gaineko teoria hartuta, ikuspegi kritikoko pedagogoen ekarpenak bildu (Apple, Bernstei, Giroux... besteak beste), eta Ikerkuntza-Ekintzaren planteamendu metodologikoak eskaini dezakeena aztertuko du.

Egileak irakasleei eta hezitzaileei oro har irekita uzten dizkie atearik nork bere irizpideen araberrako hezkuntza-jarduera egokiena osatzeko, baina horren aurretik eta hori oinarritzeko abiapuntu sendoa eskaintzen die. Berak dio sarreran betan «sexu-hezkuntzaren inguruko azterketa zientifikoa» egin nahi izan duela; izan ere, oinarri eta xede argiak eskatzen ditu hezkuntza-jarduera serioak. Eta halaxe jokatu du, zinez, seriotasun «zientifikoz», eta aldi berean benetan idazkera argia lagun hartuta. Beraz, bikoitza meritua. Hara: lehen argiak emango dizkio liburuak gai honetan interesa izan arren (nork ez, Hezkuntzaren inguruko kezka dugunon artean?) jantziegi ez dagoenari, eta lausoak garbitu sexu-hezkuntza praktikatzeko duenari.

Horra, Iñaki Karrera egin du bere apurra eta, beste hainbatetan bezala, esparru honetan ere beharrezkoa genuen. Eskerrik asko, bada, egileari. Orain gure txanda da, irakurleona, ahalegin handiak are etekin sendoagoa eman diezagun.

M. Unamuno

JASOTAKO LIBURUAK

HAYDON, G.

Enseñar valores. Un nuevo enfoque. Madril: Morata

LAMATA, R. eta DOMÍNGUEZ, R.

La construcción de procesos formativos en educación no formal. Madril: Narcea